

19-10-2024

(2024/10/19) - PEÑA AMAYA

Peña Amaya 1371 metroko talaia erraldoia da, Historiaurretik eta mende askotan zehar jendea bizi izan da bertan. Batzuek erromatarren aurreko Kantabriako hiriburutzat jotzen dute, eta Kantabriako zenbait jenderentzat giro mistikoa eta mitikoa du. Gure ibilbidean aztarna arkeologiko ugari ikusi ahal izango ditugu.

Amaya herrian (975m) hasiko gara. Pista bat hartuko dugu ipar-mendebalderantz, eta igoera txiki batetik ekialderantz biratu ondoren, aztarna arkeologikoz betetako muino baten sarrerara helduko gara. Ondoren, El Castillo gailurra ezkerretara utziz, ekialderantz jarraituko dugu, Peña Amayako haitzaren baseraino. Bertan kanal bat bilatu behar dugu goiko aldera igotzeko, leku batzuetan eskuen laguntzagaz igo behar da, baina ez da zaila. Gero, ipar-ekialderantz zeharkatuko dugu goikaldeko paramoa, Peña Amayako tontor eta seinale geodesikora iritsi arte.

Paramotik jaisteko iparraldera doan kanal bat bilatuko dugu, honek eremu harkaitsuaren behealdera eramango gaitu, eta bertatik hego mendebaldera jarraitu behar da Peña Amaya inguratzen. Bidea ez da oso nabarmena baina, altuera haundia galdu gabe, El Castillo ondoko lepora iritsiko gara, eta bertatik tonterra igoko gara. Amaitzeko, berriro jaitsiko gara hasieran zeharkatu dugun muinora, eta handik, pista jarraituz, herriraino.



(2024/10/20) - LAS TUERCES EREMU BABESTUA

Eskaladazaleek gustokoa dute paraje hau. Aire zabaleko harrizko labirintoa da, eta pasabide estuz, zuloz eta gangaz beteta dago. Hauek, garai batean, lurpeko galeria primitiboetako kare-sabaiaren disoluzio naturalaren ondorioz sortu ziren.

Villaescusa de las Torres herrian hasiko gara, ekialderantz doan pista batetik. Pista hori bidezidor bihurtuko da gero, pinudi bat zeharkatuz, Gama herriraino iristeko (960 m). Bertan dugu iturria behar izanez gero. Herritik hegoalderantz joko dugu goranzko bidezidor batetik, Gamako gazteluaren hondakinen bila (1.067 m) eta Pico Castilloraino (1.098 m).

Ondoren, mendebalderantz pista batetik itzuliko gara, eta iparralderantz biratu ondoren Las Tuerces paraje zoragarrian sartuko gara. Bertan Peña Mesa(1.071 m) ospetsua ikusiko dugu, perretxiko forma duen haitz enblematikoa eta tontorrean burdinazko gurutze bat duena. Iparralderantz zeharkatuko dugu gero, labirinto barrutik, eta haien formak behatuz, Villaescusara doan bidea topatu arte.



Compártelo:

- Click to share on WhatsApp (Opens in new window)
- Click to share on Telegram (Opens in new window)
- Click to share on Facebook (Opens in new window)
- Click to share on X (Opens in new window)
- Click to email a link to a friend (Opens in new window)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota

Egun bakarreko irteera zirkularra oinez.

Kokapena

Metatutako desnibela

Peña Amaya: +- 525m
Las Tuerces: +- 500m

Luzera

Peña Amaya: 14 km
Las Tuerces: 14 km

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

larunbatean, goizeko hamerretan

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Amaya

Irteerarako izena emateko azken eguna

17-10-2024

Jakin beharreko kontu teknikoak

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Material tekniko beharrezkoa

Sasoi honetarako oinetako eta arropa egokiak. Makilak. Frontala. Ura. Bai larunbateko bai igandeko bazkaria.

Bestelako oharrak

-OSTATUA: Larunbatean Aguilar de Campooko kanpinean lo egingo dugu (Camping Monte Royal), kanpin-dandan, furgon, bungalowen...Norberak deituko behar du kanpinera bere erreserba egiteko. Bungalow partekatzeke beste norbait behar baduzu, idatzi komentariotan eta saiatuko gara harremanetan jartzen.

-JATEKOA: larunbateko afaria eta igandeko gosaria kanpinen bertan egiteko aukera dago.
- *CAMPING MONTE ROYAL - Carretera Virgen del Llano 34800 Aguilar de Campoo Tfno: +34 979 181 007 - info@campingmonteroyal.com*

Argibide gehiago:

BEA: 6cinco896cero52 nueve

